

BAIKARA ALDIZKARIA

Duela urte batzuetatik BAIKARAN, Gipuzkoako Eskola Publikoko Gurasoen Federazioan, komunikazio-tresna bat edukitzeko beharraz hitz egiten ari ginen, horren bidez Gipuzkoako Eskola Publikoa osatzen duen hezkuntza-komunitate osora heltzeko.

Horretarako, aldizkari bat atera genuen 2003. urtean, eta harrezkero, denborak aurrera egin ahala, formatua aldatuz joan gara premia berrietara egokitu beharrez. Hartzaileak beti izan dira seme-alabak Gipuzkoako Eskola Publikoan dituzten familiak, guk horientzat lan egiten dugu eta.

Ezaugarriak eta atalak

Aldizkariak 16 orrialde ditu, koloretan, eta horren tamaina honakoa da: 27,30 cm zabal x 20,50 cm altu, eta paperaren gramajea 100ekoa da.

Aldizkariaren tirada 35.000 alekoa da (11.000 ale Donostian zabaltzen dira eta gainerakoak Gipuzkoako herrietan), eta, jakina, hor agertzen diren gaiak hezkuntzaren ingurukoak dira batez ere, nahiz eta tartean beti izaten diren beste atal batzuk ere, ludikoagak eta zabalagoak, eta badira parte-hartzea bultzatzen duten sailak ere.

Gaien egitura sinplea da; hezkuntzaren inguruko albisteak nagusi dira, ezinbestean, baina, horrekin batera, baditu beste hainbat atal ere: adibidez, erreportajeak ikastetxe publikoei buruz, ale batean gai jakin batzuk aztertzen ari garelarik, horiekin nolabaiteko lotura dutenean (programak, berrikuntzak, sariak, etab.), eta tartean lekua ematen zaie bestelako jardueri ere: foroak edo eztabaida-guneak, gurasoen eskolak, esperientzia partekatutak eta beste. Aldizkarian buzoi bat zabaltzeko asmoa dugu iradokizunak jasotzeko eta parte-hartzea bideratzeko, eta gurasoek eta ikasleek beren ekarpenak bidali ahal izango dituzte horra.

Gaur egun, bi argitaraldi egiten dira; bat urrian-azaroan, eta bestea maiatzaren bukaeran. Azken hori Euskal Eskola Publikoaren Jaiaren arabera argitaratzen da; ekainaren lehenengo asteburuan izaten da hori (kasu horretan, tirada handiagoa egiten da, Jaiaren egitaraua aldizkarian txertatu eta Euskal Herriko ikasle guztien artean zabaltzen baitugu).

Publizitate tarifak

Esan dugun bezala, aldizkaria Gipuzkoako ikasle guztiei zuzenduta dago, eta zabalkunde ikaragarria du: 55.709 ikasleri banatzen zaie -Haur Hezkuntzakoei, Lehen Hezkuntzakoei, DBHkoei, Batxilergokoei eta Lanbide Heziketakoei, bai erdi mailakoei bai goi mailakoei-.

Hauek dira gure publizitate tarifak:

- Kontrazala: 1.200 euro
- Kontrazalaren barrualdea: 1.000 euro
- Azalaren barrualdea: 1.000 euro
- Barruko orrialde osoa: 800 euro
- Orrialde erdia: 450 euro